



OLENTZERORI GUTUNA

Olentzero maitea:

Aurten ezer eskatu baino lehen gauza bat kontatu nahi dizut.

Badakizu Lezamakoa naizela eta batzuetan gurasoekin etxe inguruan ibiltzen garela paseatzen, eta beste batzuetan apurtxo bat urrutiago joaten garela. Aurreko batean Aretxalde auzoan ibili ginen. Oso auzo polita da!, nahiz eta orain errepide handi batek zeharkatzen duen, "korredorea" deitzen diote, eta bertatik kotxe ugari pasatzen dira, baita kamioiak ere. Zarata handia ateratzen dute eta ke pilo bat botatzen dute.

Baso batean sartu eta errekatxo bat ikusi genuen. Nire amak kontatu zidan txikitan bere laguntxoekin sarritan joaten zela meriendatzera eta jolastera. Eta harrigarriena, askotan karramarroak hartzen zituztela harrien azpian. Basoan arbola handiak eta ederrak ere baziren eta aitak esan ziran hortik zetorrela auzoaren izena. Eta horrela aritu ginen kontu-kontari, eta oso ondo pasatu genuen.

Baina gero, etxerako bueltan, oso triste jarri nintzen. Gurasoek esan zidaten agian urte gutxi barru ezingo ginela bertara joan, errepide handiagoa egin nahi zutela, arbolak bota eta gasolindegi erraldoi bat egin, galipota eta zementuz inguru guztia bete...

Nire aitak esaten du aberats batzuek aparkalekuak egin nahi dituztela kamioiak lagatzeko, eta kea eta usain txarra botatzen duten fabrikak, eta natura kutsatuko dutenak...

Pena handia emango lidake nagusia naizenean nire seme-alabekin ezin joateak eta horregatik aurten erabaki dut jostailuak eskatu beharrean askoz ere gehiago desiratzen dudan beste zerbait zuri eskatzea: zuk konbentzitzea pertsona aberats horiek Aretxalden kalte gehiagorik ez egiteko, nahikoa dela errepide handiarekin, galipota, asfaltoa, zaborra eta itxitako pabiloiak soberan dituztela. Ez dezatela Aretxalde gehiago hondatu, oraindik ere bertan dauden basoak nahi ditugula, eta ibaiak, eta zelaiak, eta soloak, eta baserriak...

Hori da aurten eskatzen dizudana. Eskolako laguntxo batzuek esan didaten hainbat gauza polit ere eskatu nahi dizutela. Batzuek eskola handiagoa nahi dute, eta leku gehiago ikasteko eta jolasteko. Beste batzuei gustatuko litzazieke bide-gorri txukun batetik bizikletaz eskolara joateko aukera izatea. inongo arriskurik gabe. Beste batzuek gustura ikusiko lukete herriaren erditik pasatzen den ibaia ondo garbituta, arbolez beteta eta bidez inguratuta, bertan disfrutatzeko; edo parkeak, herrian geratzen diren gune berdeetan etxebizitza gehiagoren orde. Eta gauza gehiago...

Niri ere gauza horiek guztiak gustatzen zaizkit, baina badakit oso lanpetuta zabilzala garai honetan eta horregatik konformatuko naiz zure magia erabiltzen baduzu Aretxalde auzoa babesteko. Babesteko, zaintzeko eta ez uzteko gehiago hondatzen. Etorkizunean ere disfruta dezagun. Niri ilusio handia egingo lidake eta uste dut nire gurasoei eta laguntxoei ere bai.

Bihotz-bihotzez eskerrik asko Olentzero

Olentzeroren gutunarekin batera gure urteroko oparitxoak doakizue: ilargi egutegia. Irudian gure elkarteak Aretxaldeko gune naturale-tik egindako paseo baten argazkia ikus daiteke. Egutegian ilargiaren faseak agertzeaz gain, ilbera eta ilgorako epeak ere jarri ditugu, nekazaritza lanetan lagungarri izan daitekeelakoan.

Zorionak eta goza ezazu urte berria!

CARTA A OLENTZERO

Querido Olentzero,

Este año antes de pedirte lo que quiero voy a contarte una cosa:

Ya sabes que soy de Lezama y a veces voy con mis padres a pasear por cerca de casa y a veces más lejos, por los alrededores. El otro día estuvimos por el barrio Aretxalde, que es muy bonito, aunque ahora pasa por allí una carretera muy grande que le llaman el corredor y por la que pasan muchos coches y también camiones que meten mucho ruido y echan mucho humo.

Pasamos por un bosque con un riachuelo y mi madre me estuvo contando que, cuando era pequeña, iba mucho por allí con sus amiguitas a merendar y a jugar. Y muchas veces hasta cogían cangrejos. Había también árboles grandes y bonitos, mi padre me dijo que por eso el barrio se llama así. Y así estuvimos un rato grande y lo pasamos muy bien.

Pero después, volviendo para casa, me puse muy triste. Mis padres me dijeron que puede ser que en unos pocos años ya no podamos ir por allí porque quieren hacer todavía más grande la gran carretera, y quieren también tirar los árboles para hacer una gasolinera gigante y echar mucho galipó y cemento. Mi padre dice que unos señores ricos quieren poner allí aparcamientos para dejar camiones, y fábricas de las que echan humo y mal olor, y contaminan la naturaleza.

Me daría mucha pena que cuando sea mayor no pueda ir por allí a jugar con mis hijos, por eso este año he decidido que en vez de pedirte juguetes prefiero algo que me gustaría mucho más: que convenzas a esos señores ricos para que no estropeen más Aretxalde. Que ya les vale con

la carretera grande y que ya tienen mucho sitio con galipo y asfalto, con basura y con muchas fábricas cerradas. Que no nos estropeen más el barrio de Aretxalde, que queremos los bosques y los ríos y los campos y las huertas y los caseríos que todavía tiene.

Eso te pido para este año. Algunos amiguitos y amiguitas de la escuela me han dicho que te van a pedir otras cosas también bonitas. Unos quieren una escuela más grande y con más sitios para estudiar y jugar, a otras les gustaría poder ir hasta la escuela en bicicleta desde su casa por un bonito carril bici. También hay a quien le gustaría que limpiasen bien el río que pasa por el centro y que le pusiesen árboles y caminos para poder disfrutar de él, o que hiciesen parques y no casas en las zonas verdes que nos quedan en el pueblo. Y más cosas...

A mí también me gustan mucho esas cosas pero, como sé que tienes que atender muchas peticiones, este año me conformo con que utilices tu magia para proteger el barrio de Aretxalde. Para que lo cuides y para que no dejes que nos lo fastidien más. Para que lo podamos seguir disfrutando. A mí me haría mucha ilusión y creo que a mis padres y a mis amiguitas también.

Gracias de todo corazón Olentzero.

Junto con la carta a Olentzero os va nuestro habitual y pequeño regalo: el calendario lunar de bolsillo. En la imagen podéis ver una foto de uno de los paseos de la Asociación por parajes naturales de Aretxalde. En el calendario, además de las fases de la luna, recogemos los periodos de luna descendente ascendente, creemos que puede ser de ayuda para las labores de la huerta.

Zorionak a tod@s y disfrutad el nuevo año!